

LUR BARIK NEKAZARITZARIK EZ

Badirudi zutik dirauela nekazaritzaren arazoen gaia jorratzeko egin zidaten gonbidapenak, eta ez dut aukera alferrik galtzen utziko.

Ondoko lerroetan lurraren arazoa zer den eta zergatik den arazo hori nekazaritzaren ezbeharren iturri eta buru irakusten saiatuko naiz.

Lurra ala zorua?... Hortxe dago koska!

Has gaitezen funtsezko bereizpen bat proposatzen: "lurra" eta "zorua" ezberdintzen dituen bereizpena, hain zuzen. Teoria ekonomikoan "produkziorako faktore" klasikoak lurra, kapitala eta lana dira. Lurra, beraz, nekazaritzaren produkziobideetarik bat da.

"Zorua", aldiz, oso bestelako modu batera definitzen dugu: edozein giza-ihardueraren euskarri birtual edo potentziala. Etxeak, industriak, errepideak, parkeak, kiroldegia, zentrale elektrikoak, merkatzaritza-zentroak,...eta beste zernahi ere zorua gainean ezarriko dira, eta zentzu horretan zorua da gauza horien guztien euskarri.

Orduan, zorua izan daiteke kapital bat ala kontsumorako ondasun bat, baina inola ere ezin dugu nahastu gorago emandako lurraren kontzeptu zehatzarekin.

Lurra eta zorua nahastetik (ez nahaste teorikotik, baizik eta praktikotik) dator problema. Ulertuko da zein errez lurra zoru bihur daitekeen.

Erreparatu diezaiozun bigarrenaz eman dugun definizioari "...euskarri birtual edo potentziala..." esan dugunean; zeren kontua ez baita bakarrik "de facto" zoru bihurtzen den lurra, ezpabere oraindik lur mantentzen den lurraren gainean zintzilik dagoen mehatxua, edozein unetan lur hura zoru bihurtzeko. Mehatxua, bera bakarrik, nahikoa da lurra zoru egiteko.

Expektatiba hutsak ondorio eraldatzaile horiek dakartza, zeren eta lurraren merkatuaren posibilitatea ezabatzen baitu zoruaren merkatu baten faborez. Nekazariak ezin izango du lurra erosi edo errentan hartu, merkatuak lurraren orde zorua eskainiko diolako, eta, noski, zoruaren prezioan.

Kontua da, orduan, lurraren eskuragarritasuna. Lurra lur den bitartean nekazariaren esku egon ahal izango da, beronek produktiorako oinarritzko elementu gisan erabil dezan. Baina lur barik, zoru hutsa dagoenean, lurra ez da baserritarraren esku egongo.

Arazo bakar baten aurpegi asko

Lurraren arazoak, bakar bat izanik ere, adierazpen edo agerpen ugari ditu, batzutan lurraren problemaren jasale den baserritarra bera lur-arazo bat duenik konturatuko ez den arren. Eman ditzagun adibide batzuk:

1.- Maribelek, kaletarra izanik ere, nekazaritza-ikasketak bukatu ditu, eta gustora lan egingo luke baserrian, baina ezinezko zaio, ezer baino lehenago lurra behar baitu. Ezin du lurrik erosi, ez errentan hartu, ez dagoelako eskaintzarik nekazaritza-ihardueratik amortizatu ahal izateko prezioetan.

2.- Luzio abeltzain gaztea da. Gurasoek aspaldidanik errentan zituzten lurretan ari da eta nahikoa ondo doakio. Ez du zorrik eta salmenta zuzena egiten duenez, etekin dexente ateratzen dio ustategiari. Baina lurak urbanizagarri izango dira las-

ter eta utzi beharko ditu. Ustategia jartzeko beste leku baten bila ari da, baina ez du ezer aurkitu prezio ikaragarri altuetan ez bada. Honenbestez nekazaritzari utzi beharko dio.

3.- Xabier ere abeltzaina da. Tinko jarraitu nahi du ofizioan, baina horretarako ustategia antolatu eta inbertsio batzuk egin beharko ditu, egitura nahikoa eskasak dituelako. Darabilen lur gehiena errentan hartua da, baina paperik gabe eta urteroko ahozko akordio hutsez. Modu horretan ezinezko zaio behar lukeen antolamendu berriari ekitea, egonkortasunaren falta baitu.

4.- Jonek negutegiko barazkigintzan dihardu. Produktzio mota honek lur gutxi eskatzen du, baina, oster, lurra agortu egiten da eta komeni da noizean behin lekuz aldatzea. Ahalegin handiak egin dituen arren, ezin izan du txatal bat ere eskuratu espekulazio-prezioak eskatzen dizkiotelako.

5.- Txominen kasua ezberdina da. Esnearen produktorea da eta ez du egokitzapen ta modernotasunaren trena galdu nahi izan. Beti egon da egiturak berritzen eta egokitzen, makina zein instalazioetan inbertitzen, eta hobekuntza genetikoan ere bai. Abeltzain puntero ta modelikoa da. Egia esan, zor handietan sartua dago eta, gainera, lanordu piloa egin behar izaten du duen ganadu guztia gobernatzeko. Esnearen prezioa jaisten hasi zenetik produktioa areagotuz erantzun behar izan du, gero eta behi gehiago ipiniaz. Kendu gabeko zorrez gainera zor berriak egin behar izan ditu, eta ustategiaren kostuak handitu dira; lana, noski, ere bai. Hala ere, ez du errentagarritasun handiagorik lortu, eta gainera problemak larriagotu zaizkio, sats eta purinak bildu eta botatzeko inbertsio berriei aurre egin beharrean baitago; behi asko ditu, nonbait, eta ez hainbeste lur.

6.- Peru artzain ausarta da, eta azkenik aurkitu ditu behar zituen lurak bere ustategia egokitzeko. Oso karu jarri dizkiote, bai, baina berdin dio, zeren Diputazioak ematen dituen diru-laguntzekin aterako da zulotik. Diputazioak mailegu baterako interes-puntuetan emango dio diru-laguntza, baina 6 miloiko mailegua ordaintzeko laguntza (zifra horretan tasatu diolako

Diputazioak berak erositako lurra). Kontua da Peruk 20 miloi ordaindu behar dituela errealtatean.

Nekazaritza soziala versus nekazaritza konpetitiboa

Ez dugu fikzio hutsa egin. Aurreko adibideak errealtate gordinetik ateratakoak dira (izenak aldatuaz).

Orain, beharbada, hobeto ulertuko da zergatik esan dugun gorago luraren eskuragarritasunik eza dela problema. Lurra (produktzio-faktorea) nekazari-sektorearen eskura balego, nekazari berriak sortzeko aukera egongo litzateke lehenbizi; eta horrek enplegu sortzea esan nahi du.

Horretaz gainera, dagoeneko ari diren nekazariak egonkortasuna lortuko lukete desintensifikazioaren bidez (beste hitz batzuetan, lurriari lotuago den nekazaritza bat praktikatuaz).

Egonkortasuna ezezik autonomia eta errentagarritasun handiagoak ere izango litzukete ("input"en menpekotasuna txikituko litzatekeelako eta prezioen gainbeheraldiei hobeto erantzun ahal izango lieketeelako behin kostuak gutxituz gero),.....Nekazaritza-eredu hori (ingurugiroren lagun, enpleguaren sortzaile, nekazariarentzako etekin duinen emale eta gizartearentzako kalitatezko jangaiaren hornitzaile) "nekazaritza soziala" litzateke.

Baina hori guztia esaten ari gara luraren eskuragarritasunaren baldintzapean. Errealtatea kontrakoa da lurra eta zorua nahasiak direlako.

Eta, honenbestez, errealtateak bultzatzen eta mantentzen duen nekazaritza-eredua ez da nekazaritza sozialarena, baizik eta ezaguna dugun "nekazaritza konpetitiboa"rena, bere ezaugarri eta ondorio jakin guztiekin (kontzentrazioa, intentsifikazioa, energiaren zarrastelkeria, lanpostuen galera, nekazarien menpekotasuna, teknologia arriskutsuak, produktuen manipulazio genetikoak,.....).

Luraren problematik abiatuaz nekazaritzaren ereduen arazora heldu gara.

Inork galdetzen badu ea utopikoa ez den postulatzeko den nekazaritza soziala, erantzun beharko genioke zuzen eta bidezkoztat jotzen den zerhaiten alde borrokatzea posible ezezik, beharrezkoa ere badela, behintzat gizakien titulua duintasun minimo batezaz eraman nahi badugu.

Lurraren antolakuntza, nekazaritza-politika oropen oinarri

Lurraren problema nola edo hala azalduz gero, soluziobideak nondik etorri behar diren agertu beharko genuke.

Arazoa aurkeztu duguna baldin bada, argi dago kontua ondoko hau litzatekeela: nekazaritzarako izango diren esparru edo espazioak definitzea eta babestea. Definitzea, hau da lurak lur izango diren esparruak mugatzea; eta, bigarrenik, babestea, hots, esparru horietan lurra zoru bilakatuko ez dela ziurtatzeko neurriak ezartzea.

Badago Funtzio Publiko berezi bat (botere publikoen egin-kizun jakin bat, osasungintza edo hezkuntza diren bezenbatekoa) betebeharr bikoitz horri (beste askori ere) erantzun beharko liokeena. Funtzio Publiko horri "Lurraldearen Antolakuntza" deitzen zaio.

Urte askotan egon gara Lurraldearen Antolakuntzaren politika berezirik gabe. Martxan jarri denean ikusten dugu inondik inora ez dela egiten ari egin behar zena. Hau da, Lurraldearen Antolakuntzarako tresnek (planek) ez diote ekin nekazaritzarako esparruen definizio eta babesaren zereginari.

Kasu askotan Lurraldearen Antolamendu formal hutsa (eduki materialik gabekoa) dugula esan ahal da. Beraz lurraren problema hortxe dago eta ez dugu, oraingoz, optimismorako arrazoi gehiegi.

Txarrena da Lurraldearen Antolakuntzak nekazaritzarekin duen betegabeko zorra guztiz gauza oinarritzakoa dela, zeren edonolako nekazaritza-politikaren giltzarria baita.

Benetan zaila (ezinezkoa?) izango da nekazaritzaren politika sektorial serio bat, aurretik (edo aldiberean) ez bada konpon-tzen ezer baino lehenagokoa dena: leku jakin batzutan, behintzat, lurra lur izan dadila ziurtatzea.

Jabier Erize